

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1578/2021 FORU AGINDUA, irailaren 24koa. Honen bidez, pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dira.

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. Hala, bada, 5/2020 Foru Araua onartuta, Bizkaian aurrerapen kualitatibo bat egin da BATUZ izeneko estrategia integralaren inplementazioan, zeinaren bidez jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien tributazioa kontrolatzen baita, edozein delarik ere eragiketen tamaina edo bolumena. Halaber, aurrerapauso bat da zergaduneri tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko kudeaketa-eredu berriak ezartzeko bidean.

Ondoren, haren edukia garatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretua onetsi da, zeinaren bidez BATUZ proiektuaren tributu-betebeharrak garatu baitira, hauek aldatuta: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudia, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen kasuan, uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, doikuntza txiki batzuk sartu dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 114. artikuluan ezarritako eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua eramateko betebeharrean; hain zuzen, honako hau ezarri da: betebehar hori Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez bete beharko da, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua osatzen duten erregistroak elektronikoki emanaz. Halaber, kapitulu berri bat eskatu da erregistro-liburuaren barruan, tributu-arloan eragina duen bestelako informazioari buruzkoa. Horrez gainera, zehazten da ezen, erregistro-liburuko diru-sarreraren eta egindako fakturen kapituluan, sinadura elektronikoa duten fitxategi informatiboak erregistratuko direla, fakturazioa TicketBAI sistemaren bidez egiteko betebeharrari dagozkionak.

Bestalde, pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren erregelamenduzko garapena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 114. artikuluan zehaztuta dago, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 39 bis-39 decies bitarteko artikuluetan ere.

Zehazki, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 39. bis artikulua ezarritakoaren arabera, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egin beharko da, hura osatzen duten erregistroak modu elektronikoa emanaz; erregistro-liburu hori osatzen duten idatzoharren emate elektronikoa, berriz, fitxategien truke elektronikoa automatikoen bidez gauzatuko da, edo, hala badagokio, dagozkion formulario elektronikoen bidez. Hori guztia bat etorriko da Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak foru-aginduz onetsiko dituen zehaztapen tekniko eta funtzionalekin.

Ildo horretan, adierazi behar da ezen balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion erregistro-liburuak fakturazio-erregistroak elektronikoki emanaz —hau da, Informazioaren Berehalako Horniduran (SII) oinarritutako sistemaren bidez— egiteko betebeharra



oro bat betetzat joko dela eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak eginez. Hori hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko aitorpena (347 eredu) aurkezteko betebeharrari dagokionez ere aplikatuko da.

Bereziki nabarmendu beharrekoa da ezen, 140 eredu aurkezteko betebeharraren orde (eredu horren bidez, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko edukiaren berri emateko aitorten informatiboa aurkezteko betebeharra betetzen zen), eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua egoitza elektronikoen bidez egiteko betebeharra ezarri dela.

Azaldutakoa dela bide, eta arestian aipatutako 39 bis artikulua edukian oinarriturik, foru-agindu honen bidez, arautu egiten dira pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko zehaztapen arauemaileak.

Edukiari dagokionez, foru-agindu honek, batetik, zehaztu du zer zergapekok aurkeztu beharko duten pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua, eta, bestetik, erregistro-liburu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko betebeharra ezarri du.

Ondoren, betebeharrari hori ordezkari bidez bete ahal izango dela ezarri du, eta ordezkari gaituek bete behar dituzten betekizunak jaso ditu. Ordezkariorik, dagokion gaikuntza lortzeko, eskabide bat aurkeztu beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen horretarako haien esku jarriko den formularioa betez; eskabidean, erantzukizunpeko adierazpen bat ere egongo da.

Idatzoharrak elektronikoki emateko prozedurari dagokionez, bi modu egongo dira: bai fitxategi informatikoen truke automatikoen bidez –Bizkaiko Foru Aldundiaren sarre-za-zerbitzua erabiliz–, bai web-formularioak erabiliz. Sistema horiek biak gaituta daude Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen.

Aurreko paragrafoan aipatutako fitxategi informatikoen formatua eta diseinua direla eta, fitxategien edukia zehazten duten erregistro-eremuetara egokitu beharko dira (erregistro-eremu horiek foru-agindu honen I. eranskinean jaso dira), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen jasota daudenak erabili beharko dira.

Horrez gainera, lehen xedapen gehigarriak ezarri du hirugarren batzuen ordezkari moduan fakturazio-erregistroak elektronikoki emateko gaikuntzek (eskatzaileen ezaugarri bereziak kontuan harturik Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 15eko 2232/2017 Foru Aginduaren 6.1 artikuluan xedatutakoan oinarriturik emanak; foru-agindu horren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko zehaztapen normatibo eta teknikoak arautzen dira) indarrean iraungo dutela eta aurreratzean foru-agindu honetan xedatutakoaren arabera jardun beharko dela halakoak lortzeko.

Halaber, ordezkari gaitua ezarri da fabrikazioaren gaineko zerga berezien peko produktuei dagozkien kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko, eta, foru-agindu honen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren bat, beronen 2.4 artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraitu beharko zaio ordezkari gaitu hori lortzeko.

Azkenik, hirugarren xedapen gehigarrian Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren IX. tituluko XI. kapituluaren arabide berezien erregulazio berrira egokitzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis.1 artikuluan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 122 bis.1 artikuluan aipatzen den software bermatzaileen zehaztapen arauemaileak eta teknikoak.

Hori dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua emandako ahalmena erabiliz, hau,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.—Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko betebeharra

1. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua egitera behartuta dauden pertsonak eta entitateak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren 114. artiku-



luan ezarritakoak dira, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 39 bis artikuluan ezarritakoak ere.

2. Pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren edukia, berriz, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 39 ter, 39 quater, 39 quinquies, 39 sexes, 39 septies eta 39 octies artikuluetan ezarritakoa izango da.

3. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egingo da, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudian eta foru-dekretu honetan xedatutakoaren arabera.

4. Agiri, ondasun eta eragiketen kategoriari buruzko informazioa eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide-motei buruzkoa foru-agindu honen I. eranskinean definitutako gakoaren arabera emango da.

5. Informazio hori foru-agindu honen 4. artikuluan aipatutako fitxategi informatikoen formatua eta diseinua kontuan hartuta igorri beharko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudiaren 39 nonies eta 39 decies artikuluetan ezarritako epeetan, eta 3. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

2. artikulua.—Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua osatzen duten idatzoharrak elektronikoki emateko baldintza orokorrak

1. Pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko, hura osatzen duten idatzoharrak elektronikoki eman beharko dira.

2. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua egitera behartuta dagoenak emango ditu, elektronikoki, idatzohar horiek; edo behartuta dagoenaren ordezkari diharduen hirugarren batek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Bereziki, onartutako entitateetako edo elkarteetako bazkide edo kide diren elkar-gokide profesionalek, baldin eta hirugarren batzuen ordezkari gisa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabiltzeko baimena ematen duten hitzarmenak edo itunak sinatu badituzte Ogasun eta Finantza Sailarekin (Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 71.7 artikuluan ezarritakoarekin bat), orduan, jarduketak egin ahal izango dituzte beren ordezkatuaren eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu osatzen duten idatzoharren emate elektronikoki dagokionez, kudeaketa-araudi horren 69 bis artikuluan ezarritakoaren arabera eman zaizkien ahalmenen arabera.

4. Halaber, Ogasun eta Finantza Sailak gaikuntza eman ahal izango die hala eskatzen duten pertsona edo entitateei, hirugarren batzuen ordezkari gisa Bizkaiko sarrera-zerbitzuaren bidez eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren idatzoharrak elektronikoki emateko. Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan eskura jarriko zaien formularioa bete beharko dute.

Eskaera horrek erantzukizunpeko adierazpen bat izango du, eskatzen duen pertsonak edo entitateak sinatu beharko duena. Bertan, honako baldintza hauek betetzen dituela adierazi beharko du:

- a) Zerga-administrazioarekin Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez harremanak izateko onartutako ziurtagiri elektronikoki bat baduela, eta ziurtagiri elektronikoki horrek ahalmena ematen diola eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren idatzoharrak bidaltzeko foru-agindu honetan ezarritako zehaztapen arauemaile eta teknikoekin bat etorrira.
- b) Ordezkatzen duen pertsonaren edo entitatearen ordezkari gisa duela Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko Foru Arauaren 45. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ogasun eta Finantza Sailak edozein unetan eskatu ahal izango du ordezkari gisa egiazta dadila; ordezkari gisa, bestalde, zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabilita egin ahal izango da. Bereziki, ordezkari gisa foru-agindu honen II. eranskinean jasotako dokumentu normalizatuaren bidez egiaztatzea ahal izango da.



- c) Datu pertsonalen tratamendu automatizaturako aplikatu beharreko izaera pertsonaleko datuen babesaren arloko indarreko araudian eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.
 - d) Gainerako baldintzak betetzen dituela, bai eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko idatzoharren aurkezpen telematikoa arautzen duen indarreko araudian ezarritako prozedura ere.
5. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko idatzoharrak elektronikoki emateko, baldintza hauek bete beharko dira:
- a) Erregistro-liburua egitera behartuta dagoenak identifikazio fiskaleko zenbakia izan beharko du (IFZ) eta, idatzoharrak eman aurretik, identifikatuta egon, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudiaren 4.etik 9.era bitarteko artikuluetan aipatzen den zergapekoen zentsuan.
 - b) Erregistro-liburua egitera behartuta dagoenak Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako onartuta duen identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemetako edozein erabili ahal izango du idatzoharrak emateko.

Ordezkarri batek elektronikoki ematen baditu idatzoharrak, ordezkarri horrek eduki beharko du onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema.

Halaber, erregistro-liburua egitera behartuta dagoena Foru Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren irailaren 9ko 1482/2020 Foru Aginduaren III. eranskineko 4.1 apartatua ezarritako gailuaren ziurtagiriaren bidez identifikatuz eman ahal izango dira idatzoharrak; foru-agindu horren bidez, software bermatzailearen zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dira. Horretarako, idatzoharrak eman aurretik, aipatutako erregistro-liburua egitera behartuta dagoenak edo haren ordezkarri arituko den hirugarren batek Zerga-administrazioari jakinarazi beharko dizkio, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa haren esku jarriko den formularioaren bidez, gailuaren ziurtagiriaren identifikazio-datu hauek:

- a) Ziurtagiria eman duen entitatearen identifikazioa.
- b) Ziurtagiriaren serie-zenbakia.

3. artikulua. — Idatzoharrak elektronikoki emateko prozedura

1. Pertsona fisikoaren eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua (foru-agindu honen 1. artikuluan aipatua) osatzen duten idatzoharrak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez elektronikoki emateko, bi bide hauek egongo dira:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiaren sarrera-zerbitzuaren bidez egindako fitxategi informatikoen truke automatikoaren bitartez, foru-agindu honen I. eranskinean definitutako zehaztapen teknikoekin bat eta unean-unean Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian argitaratuko direnekin bat etorrira.
- b) Web-formularioa erabiliz. Kasu honetan, idatzoharrak ematea banaka egingo da.

Sistema horiek biak gaituta egongo dira Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren sarrera-zerbitzuaren bidez egindako fitxategi informatikoen truke automatikoaren bitartez (aurreko 1 apartatuaren a) letran aipatua) jasotako idatzoharrak jasotzen diren unean, sarrera-zerbitzu horrek informazio hau bidaliko du fitxategiaren prozesamenduaren emaitzaren arabera:

- a) Sarrera-zerbitzuak jasotako fitxategi informatikoari emandako identifikazio-kode bakarra.
- b) Jasotze-data eta -ordua.
- c) Fitxategia aurkeztu duen pertsonaren edo entitatearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).
- d) Fitxategia prozesatzearen emaitza, balio hauetako bat adierazita: zuzena, partzialki zuzena edo okerra.



Fitxategi okerrak ez dira erregistratuko Bizkaiko Foru Aldundiaren sistema informatikoan; behin okerrak zuzenduta birbidali beharko dira, erregistro-betebeharrak ez baita betetzat joko harik eta zuzenketa bidali arte.

- e) Jasotako fitxategiaren barruko idatzoharretako bakoitza prozesatzearen emaitza, balio hauetako bat adierazita: zuzena, okerrekin onartua edo okerra. Okerrik badago, aurkitutako okerraren kodearen berri emango da.

Idatzoharra prozesatzearen emaitza «okerrekin onartua» bada, beharrezko diren zuzenketa egin beharko dira, eta egindako idatzoharra aldatu.

Idatzoharra prozesatzearen emaitza «okerra» bada, beharrezko diren zuzenketa egin beharko dira, eta idatzoharra berriro bidali, idatzoharra ez baita egindakotzat joko harik eta zuzenketa igorri arte.

4. artikulua.—Fitxategi informatikoen formatua eta diseinua

Egoitza elektronikoen bidez egiten diren erregistro-liburuak idatzoharrek elektronikoki emateko erabiltzen diren fitxategi informatikoak haien edukia zehazteko foru-agindu honen I. eranskinean agertzen diren erregistro-eremuetara egokituko dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen jasota dauden formatua eta diseinua izan beharko dute.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen Xedapen Gehigarria.—Ordezkaritza gaitua eskatzeko formularioa eta balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko gaikuntzen indarraldia

1. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 15eko 2232/2017 Foru Aginduak —haren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko zehaztapen normatibo eta teknikoak arautzen dira)— 6. artikulua 1. apartatuko azken paragrafoan ezartzen duen gaikuntza lortzeko xedatutakoa gorabehera, foru-agindu honen 4. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren arabera jardungo da.

2. Halaber, indarrean iraungo dute foru-agindu horren 6. artikulua 1. apartatuko azken paragrafoan xedatutakoa dela-bide emandako gaikuntzek; beraz, baliozkotasuna izango dute foru-agindu honen 4. artikulua 2. apartatua xedatutakoa betetzeko.

Bigarren Xedapen Gehigarria.—Aldatzea Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2495/2019 Foru Agindua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez arautzen baita Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien xede diren produktuen kontabilitatea egiteko betebeharra

Berridatzi egiten da Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 26ko 2495/2019 Foru Aginduaren 7. artikulua 1. apartatua (agindu horren bidez, Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien xede diren produktuen kontabilitatea egiteko betebeharra arautzen da); honela geratzen da idatzita:

«1. Kontabilitateko idazpenen titularra den subjektu pasiboak berak eman ahal izango ditu, elektronikoki, kontabilitateko idazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez, edo haren ordezkari diharduen hirugarren batek, Bizkaiko Lurralde Historikoen Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bereziki, onartutako entitateetako edo elkarteetako bazkide edo kide diren elkargokide profesionalek, baldin eta hirugarren batzuen ordezkari gisa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabiltzeko baimena ematen duten hitzarmenak edo itunak sinatu badituzte Ogasun eta Finantza Sailarekin (Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 71.7 artikuluan ezarritakoarekin bat), orduan, jarduketak egin ahal izango dituzte beren ordezkarien kontabilitateko idazpenak



emate elektronikoari dagokionez, kudeaketa-araudi horren 69 bis artikuluan ezarritakoaren arabera ordezkatuak eman dizkieten ahalmenen arabera.

Halaber, Ogasun eta Finantza Sailak gaikuntza eman ahal izango die hala eskatzen duten pertsona edo entitateei, hirugarren batzuen ordezkari gisa Bizkaiko sarrera-zerbitzuaren bidez kontabilitateko idazpenak elektronikoki emateko, pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dituen Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2. artikuluan 4. apartatuan xedatutakoarekin bat.»

Hirugarren Xedapen Gehigarria.— *Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren irailaren 9ko 1482/2020 Foru Aginduaren aldarazpena; Foru agindu horrek software bermatzailearen zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen ditu*

Irailaren 9ko 1482/2020 Foru Aginduaren I. eranskinaren L 9 zerrendan araubide bereziko gako berri bat sartu da. Foru agindu horren bidez, software bermatzailearen zehaztapen arauemaile eta teknikoak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dira.

«Balioa: 17

Deskribapena: IX. tituluko XI. kapituluan ezarritako araubideeren bati atxikitako eragiketa (OSS eta IOSS).»

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra.— *Indarrean jartzea*

Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2021eko irailaren 24an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

**I. ERANSKINA. ERAGIKETA EKONOMIKOEN ERREGISTRO-LIBURUAREN EGITURA ETA BALIOZKOTZEAK****I. ALTARI ETA ALDAKETARI BURUZKO FITXATEGIEN ERREGISTRO-EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK**

Legenda	Gorria =	Nahitaezko eremua
	Beltza =	Aukerako eremua
		Hautaketa eremua

Eman beharreko informazioa jarraian aipatzen diren eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko kapitulu edo azpikapituluren bati lotuta bidaliko da.

- A) Sarrerren eta emandako fakturen kapitulua.
 - Software bermatzailea erabiliz emandako fakturak dituzten sarrerren azpikapitulua.
 - Software bermatzailerik gabe emandako fakturak dituzten sarrerren azpikapitulua.
 - Fakturarik gabeko sarrerren azpikapitulua.
- B) Gastuen eta jasotako fakturen kapitulua.
 - Fakturadun gastuen azpikapitulua.
 - Fakturarik gabeko gastuen azpikapitulua.
- C) Atxikitako ondasunen edo inbertsio-ondasunen kapitulua.
- D) Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen kapitulua.
- E) Horniduren eta ordejarrien kapitulua.
- F) Tributu-eragina duen bestelako informazioari buruzko kapitulua.

Bestalde, ondasunen elkartzeak egin daitezke, eranskin honetako zehaztapenekin bat etorrita.

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramandako eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren edukia zehazten duten alta- eta aldaketa-eragiketarako fitxategi informatikoetan jasotako erregistro-eremuetako bakoitzaren deskripzioa biltzen da.

Erregistroen deuseztapena egiteko eragiketetan, deuseztapenarako berezia den fitxategi informatiko baten bidez egingo da eskaera. Fitxategi horren goiburua beste batzuen goiburu bera da, eta zerrenda bat jasoko du non bidalketa berean deuseztatu nahi diren faktura guztien zerrenda bilduko den, identifikatuta. Fitxategi horien zehaztapenak Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian argitaratuko dira.



A. Sarrerren eta emandako fakturen kapitulua Software bermatzailea erabiliz emandako fakturak dituzten sarrerren azpikapitulua

Blokea	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Azalpena	Formatua Luzera Zerrenda
Goiburua	Erudia									Atorpen-eredua. «1.40» balioarekin informatu beharko da (Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua, pertsona fisikoak)	Alfanumerikoa (3)
	Kapitulua									Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuaren kapitulua. «1.» balioarekin informatu beharko da (Sarrerak eta emandako fakturak)	Alfanumerikoa (2)
	Azpikapitulua									Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuaren azpikapitulua. «1.1.» balioarekin informatu beharko da (Software bermatzailea erabiliz emandako fakturak dituzten sarrerak)	Alfanumerikoa (3)
Goiburua	Eragiketa									Eragiketa-mota. «A00» balioarekin informatu beharko da (Alta)	Alfanumerikoa (3)
	Bertsioa									Erabilitako eskemaren bertsioaren identifikatzailea	Alfanumerikoa (5) LC0
	Ekitaldia									Ekitaldia	Zerbakiakoa (4)
	Zergapekoa	IFZ								Zergapekoaren IFZ	IFZ formatua (9)
		Abizenak/Izena Izen Soziala								Zergapekoaren abizenak eta izena edo sozietate-izena edo izendapen sozial osoa	Alfanumerikoa (120)
Sarrerak (1-1.000)		Ticket/Bai								Ticket/Bai software bermatzailearen bidez egindako alta-eragiketaren fitxategia, sinatua eta Base64n kodifikatua	Base64Binary
										Egindako jardueraren epigrafea	Alfanumerikoa (7)
										Identifikatzaile honek zehazten du PFEZean egotri beharreko sarrera BEZaren zerga-oinarria ez beste bat den edo, hala denean, zerga-oinarria gehi jasarazitako kuota ez beste bat. Eredu honetan informazioak adierazi ezean, «N» balioa duela joko da	Alfanumerikoa (1) L15
		Errenta	Errenta Xehetasuna (1-10)							PFEZean zenbatu beharreko sarrera, bestere sarrera BEZaren zerga-oinarria ez beste bat bada	Hamartarra (12,2)
										Identifikatzaile honek zehazten du kobrantza eta ordainketen irizpidea aukeratu den. Eredu honetan informazioak adierazi ezean, «N» balioa duela joko da	Alfanumerikoa (1) L16



Kutxako irizpidearen araubide bereziari atxikitako BEZaren subjektu pasiboek (pertsonek edo entitateak) edo kobrantzen eta ordainketen irizpidea aukeratu duten PFEZaren zergadunek bete beharreko kobrantzei buruzko informazio gehigarria

Blotza	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Azalpena	Formatua Luzera Zerrenda	
Golburua	Eredua												Altorpen-eredua. «140» balioarekin informatu beharko da (Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua, pertsona fisikoak)	Alfanumerikoa (3)	
	Kapitulua												«5» balioarekin informatu beharko da (Kutxa-irizpidea / Kobrantzen eta ordainketen irizpidea)	Alfanumerikoa (2)	
	Azpikapitulua												«5.1» balioarekin informatu beharko da (Kobrantzak)	Alfanumerikoa (3)	
	Eragiketa												Eragiketa-mota	Alfanumerikoa (3) LC4	
	Bertsioa												Erabiltzaile eskemaren bertsioaren identifikatzailea	Alfanumerikoa (5) LC0	
	Ekitaldia												Ekitaldia	Zenbakizkoa (4)	
	Zergapekoa												Zergapekoaren IFZ	IFZ formatua (9)	
													Zergapekoaren abizenak eta izena edo sozietate-izena edo zendapen sozial osoa	Alfanumerikoa (120)	
													Jardueraren epigrafea	Alfanumerikoa (7)	
													Faktura identifikatzen duen seriea	Alfanumerikoa (20)	
Kobrantzak (1-10.000)													Faktura identifikatzen duen faktura-zenbakia	Alfanumerikoa (20)	
													Faktura eman den eguna	Data formatua (10) (uuuu/hh/ee)	
													Sarrera-mota	Alfanumerikoa (1) L17	
													Eragiketa egin den data	Data formatua (10) (uuuu/hh/ee)	
													Sarreraren identifikazio-sekuentzia	Zenbakizkoa (2)	
													Kobrantza egin den data	Data formatua (10) (uuuu/hh/ee)	
													Kobratutako zenbatekoa	Hamarartara (12,2)	



Blokea	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Azalpena	Formatua Luzera Zerrenda
Kobrantzak (1-10.000)	Sortutako BEZarenKuota									Sortutako BEZaren Kuota	Hamartarra (12,2)
	PFEZsarrera Zenbatekoa									PFEZe an zenbatu beharreko sarrera. Informatzen bada, sarrerak zero ez beste bat izan behar du.	Hamartarra (12,2)
	KobrantzaBidea									Erabilitako kobrantza-bidea. Nolanahi ere, kutxa-irizpidearen BEZaren araubide bereziari atxikiako eragiketei buruzko informazioa eman behar da	Alfanumerikoa (2) L22
	Bidearen Deskribapena									Kobrantza bidearen deskribapena	Alfanumerikoa (34)



B. Gastuen eta jasotako fakturen kapitulua Fakturadun gastuen azpikapitulua

Blakea	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Azalpena	Formatua Luzera Zerrenda	
Goiburua	Eredua										Alorpen-eredua. «140» balioekin informatu behariko da (Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua, pertsona fisikoak)	Alfanumerikoa (3)	
	Kapitulua										Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua kapitulua. «2» balioekin informatu behariko da (Gastuak eta jasotako fakturak)	Alfanumerikoa (2)	
	Azpikapitulua										Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua azpikapitulua. «2.1» balioekin informatu behariko da (Fakturadun gastuak)	Alfanumerikoa (3)	
	Eragiketa										Eragiketa-mota	Alfanumerikoa (3) LC4	
	Bertsioa										Erabiltzailearen bertsioaren identifikatzea	Alfanumerikoa (5) LC0	
	Ekitaldia										Ekitaldia	Zenbakizkoa (4)	
	Zergapekoa										Zergapekoaren IFZ	IFZ formatua (9)	
												Zergapekoaren abizenak eta izena edo sozietate-izena edo izendapen sozial osoa	Alfanumerikoa (120)
												Jasotako fakturaren emailearen IFZ	IFZ formatua (9)
												Jasotako fakturaren emaileari lotutako herrialdearen kodea	Alfanumerikoa (2) (ISO 3166-1 alpha-2 codes) L1
Gastuak											Egoitza dagoen herrialdearen identifikazio-mota ezartzeko gakoa	Alfanumerikoa (2) L2	
											Identifikazio-zerbakia egoitza dagoen herrialdean	Alfanumerikoa (20)	
											Jasotako fakturaren emailearen abizenak eta izena edo sozietate-izena edo izendapen sozial osoa	Alfanumerikoa (120)	
											Faktura identifikatzen duen seriea	Alfanumerikoa (20)	
											Faktura identifikatzen duen faktura-zerbakia	Alfanumerikoa (20)	
											Fakturaren laburpen-izidapen baten kasuan, azken faktura identifikatzen duen faktura-zerbakia	Alfanumerikoa (20)	
											Faktura eman den data	Data formatua (10) (uuuu/hh/ee)	



Blokea	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Azalpena	Formatua Luzera Zenrenda
Gastuak	Gastua (1-10.000)	Errenta	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Ondasun abiltzari dagokion erreferentzia, zehaiaren gainean aplikatu baitaiteke kontabilitate-kontuak erreferentzia egiten diren gastua. Erreferentzia horrek bat etorri behar du ondasun atxikien edo inbertsio-ondasunen kapitaluzko ageri den erreferentziarekin	Alfanumerikoa (10)
			Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa		
			Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	PFEZeko gastu kengariaren zenbatekoa	Hamartarra (12,2)
			Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Identifikatzaile honek zehazten du kobrantza eta ordainketen irizpidea aukeratu den. Eremu honetan informaziorik adierazi ezean, «N» balioa duela joko da	Alfanumerikoa (1) L16



Atxikitako ondasunen edo inbertsio-ondasunen hobekuntza

Blokea	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Datuak/Multzoa	Azajpena	Formatua Luzera Zerrenda	
Goiburua	Eredua									Altoipen-eredua. «1.40» balioarekin informatu behariko da (Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburue, pertsona fisikoak)	Alfanumerikoa (3)	
	Kapitulua									Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuaren kapitulua. «3» balioarekin informatu behariko da (Atxikitako ondasunak edo inbertsio-ondasunak)	Alfanumerikoa (2)	
	Azpi-kapitulua									«3.2» balioarekin informatu behariko da (Atxikitako ondasunen edo inbertsio-ondasunen hobekuntza)	Alfanumerikoa (3)	
	Eragiketa									Eragiketa-nota	Alfanumerikoa (3) LC4	
	Bertsioa									Erabilitako eskemaren bertsioaren identifikatza	Alfanumerikoa (5) LCO	
	Ekitaldia									Ekitaldia	Zenbakizkoa (4)	
	Zergapekoa									Zergapekoaren IFZ	IFZ formatua (9)	
											Zergapekoaren abizenak eta izena edo sozietate-izena edo izendapen sozial osoa	Alfanumerikoa (120)
											Atxikitako ondasunaren edo inbertsio-ondasunaren erreferentzia	Alfanumerikoa (10)
											Hobekuntza jasotako ondasunaren erreferentzia	Alfanumerikoa (10)
Ondasunen Hobekuntza (1-10.000)										Eragiketa egin den data	Data formatua (10) (uuuu/hh/ee)	
										Ondasuna erabiltzen hasi zen eguna. Ibilgetu-urteko elementuen kasuan, elementua noliz jaso edo eskuratu den	Data formatua (10) (uuuu/hh/ee)	
										Ondasun-jabetzaren titulua	Alfanumerikoa (1) L24	
										Jarduerararik atxikipen-ehunekoa, PFEZaren eta BEZaren ondorioetarako	Hamartarra (3,2)	
										Hasierako balio amortizagarriaren zenbatekoa	Hamartarra (12,2)	
										Ondasuna amortizatzeke sistema	Alfanumerikoa (1) L30	
										Aurreko ekitaldiko abenduaren 31n metatutako amortizazioaren zenbatekoa	Hamartarra (12,2)	



Atxikitako ondasunen edo inbertsio-ondasunen baja

